

## Bermeoko udal liburutegiak Aste Kulturala antolatu du literatura, memoria eta gaurkotasuna herritarrengana hurbiltzeko

- Egile, ikertzaile eta sortzaileak bilduko dituen aste berezi baten bidez, liburutegiak herritarrengana hurbiltzeko bide berriak sendotu nahi ditu, irakurketa eta elkarrizketa komunitatearen erdigunean jarritz.

Ekainaren 15etik 19ra bitartean, Bermeoko udal liburutegiak Aste Kulturala ospatuko du. Bost egunez, literatura, memoria historikoa, gizarte-gaiak eta nazioarteko errealitatea izango dira protagonista, askotariko publikoari zuzendutako jardueren bidez.

Ekimen hau liburutegiak azken aldiari abiatu duen hausnarketa eta berrikuntza-prozesuaren barruan kokatzen da. Izan ere, liburutegiak bere ohiko eginkizunak betetzen jarraitzen duen arren, gero eta nabarmenagoa da herritarrentzako topagune, elkarrizketa-gune eta kultur dinamizatorako espazio izateko borondatea. Helburua da liburutegia ez ulertzea bakarrik liburuak mailegatzeko leku modura, baizik eta ezagutza partekatzeko, ideiak trukatzeko eta komunitatea eraikitzeke gune bizi modura.

Aste Kulturalaren bidez, liburutegiak herritarrei zabaldu nahi dizkie literaturak eta kulturak eskaintzen dituzten ateak, eta, aldi berean, egungo gizartean eztabaidagai diren hainbat gairi buruzko hausnarketarako espazioa eskaini. Horretarako, programazioak literatura unibertsala, euskal kulturaren memoria, familien bizipenak eta nazioarteko gatazken inguruko gogoetak uztartuko ditu.

Aste Kulturalaren lehen aurkezpena ekainaren 15ean, 18:30ean, izango da. Asier Merlo idazle bermeotarrak *El último rincón del infierno* lana aurkeztuko du. Gazte-literaturaren esparruan kokatzen den nobela honek irakurle gazteak izango ditu jomugan. Aurkezpena gaztelaniaz egingo bada ere, egileak euskarazko sarrera eskainiko du.

Ekainaren 16an, 18:30ean, Miren Gabantxo Uriagerekak Lourdes Iriondoren figuraren inguruko hitzaldia emango du. Euskal kulturaren historian erreferente nagusietako bat izan zen Iriondo, eta azken urteotan haren bizitza eta ekarpena berriro aztertzeke interesa berpiztu da hainbat



argitalpenen bidez. Saioak artista, emakume eta kultur eragile modura izan zuen garrantzia aztertuko du.

Ekainaren 17an, 18:30ean, Bego Pradosek *No pasa nada* liburua aurkeztuko du. Lanak autismoaren errealitatea jorratzen du familien ikuspegitik, eta eguneroko bizipenak, erronkak eta ikaskuntzak partekatzeko aukera eskainiko du. Literaturatik abiatuta, gizartean gero eta presentzia handiagoa duen gai bati buruzko elkarrizketa sustatzea izango da helburua.

Ekainaren 18an, 19:00etan, Asel Luzarraga idazleak *Puta jainkotiarrek* nobela aurkeztuko du. Euskal literaturako ahots berezietako baten eskutik, sormen-prozesuaz, literaturaz eta nobelaren gai nagusiez hitz egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Aste Kulturalari amaiera ekainaren 19an, 18:30ean, emango zaio. Markel Ortuzarrek *Olibondoaren herria* lana aurkeztuko du, Palestinako gatazkaren inguruko testuingurua eta ulermen-gakoak eskaintzen dituen liburua. Saioari Nadia Nemeh Bermeoko alkateak egingo dio sarrera, eta gaurkotasan handiko gai baten inguruan hausnartzeko aukera izango dute bertaratutakoek.

Horrez gain, domekan, ekainaren 14an, Eusko-Irlandar LagunCara elkarteak antolatuta, mundu osoko literaturzaleek ospatzen duten Bloomsday eguna ospatuko dute Bermeon. James Joyceren *Ulises* eleberri ospetsua izango da abiapuntua, eta ibilaldi berezi baten bidez gogoratuko dute literatura garaikidearen maisulan handietako bat; 10:30ean hasiko dute ibilbidea, Talako kantinatik.

Aste Kulturalaren bidez, liburutegiak irakurzaletasuna sustatzeaz gain, herritarren arteko topaketa, pentsamendu kritikoa eta kultur parte-hartzea bultzatu nahi ditu. Azken finean, liburutegia herriko kultur bizitzaren erdigunean kokatzeko beste urrats bat da, liburuak ez ezik, ideiak, esperientziak eta pertsonak ere elkartzen dituen espazio modura.

Jarduera guztiak Bermeoko udal liburutegian egingo dira. Ekitaldiak irekiak izango dira eta sarrera doakoa izango da aretoa bete arte.

